


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEKO IKERTALDEEI LAGUNTZAK
EMATEKO DEIALDI BEREZIA, EUSKAL
UNIBERTSITATE SISTEMAKO IKERKETA TALDEEN
JARDUERAK BULTZATZEKO XEDEZ EUSKO
JAURLARITZAK 2015ean EGINDAKO DIRU
LAGUNTZETARAKO DEIALDIAN AITORPENA
LORTU ARREN FINANTZIAZIORIK LORTU EZ ZUTEN
IKERTALDEEI ZUZENDUA**

(2017)

ATARIKOA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitate jabetuta dago unibertsitatean ari diren zenbait ikertaldeek daukaten arazoaz, euskal unibertsitate sistemako ikerketa taldeen jarduerak bultzatzeko xedez Eusko Jaurlaritzak egindakoa diru laguntzen 2015eko deialdian parte hartu ondoren aitortpena lortu arren ez baitute laguntzarik lortu.

Xede honetarako, gutxienez 1.200.00 euro bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako "Ikerkuntza bultzatu eta sustatu" ekintzan, 1.1. lerroan, Ikerketa Proiektuak, taldeak eta ekipamendu zientifikoa" programa kontratuan ezarritako aurrekontu kredituaren kargura.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean, IGBB) oniritziarekin, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erabaki du argitaratzea laguntzetarako deialdi berezia, Eusko Jaurlaritzaren 2015eko deialdian aitortuak izan arren finantziatorik lortu ez duten UPV/EHUko ikertaldeei zuzendua.

1. OINARRIA.- DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdiaren helburua da atarian adierazitako egoeran dauden taldeei beren ikerketa jardueran eragindako kalteak arintzea.

Deialdi honek helburu du, beraz, Eusko Jaurlaritzaren 2015eko deialdian aitortpena lortu arren diru laguntzarik jaso ez duten taldeentzako diru laguntza berezia zehaztea eta esleitzea. Laguntza hau emango zaie, ahal den heinean, 2017 eta 2018 urteetako jarduerak finantzatzeko.

UPV/EHUK finantzazio honetarako egiten duen ahaleginarekin bat etorrita, laguntza honen onuradun diren ikertaldeek konpromisoa hartu beharko dute Eusko Jaurlaritzak 2018an egingo duen deialdian parte hartzeko.

2. OINARRIA.- IKERTALDEEN EZAUGARRIAK

2.1.- Deialdi berezi honetan bakarrik parte hartu ahal izango dute euskal unibertsitate sistemako ikerketa taldeen jarduerak bultzatzeko diru laguntzen 2015eko deialdian A edo B talde bezala aitortuak izanik finantziatorik lortu ez duten ikertaldeak.

3. OINARRIA.- IKERTALDEEK ETA TALDEKO KIDEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

3.1.- Ez dago araurik edo mugarik taldeko kideek bete beharreko ezaugarrien inguruan; ezarriko diren muga bakarrak, beraz, izango dira ikertaldearen aitortpena lortzeko bide izan zen Eusko Jaurlaritzaren deialdian zehaztutakoak.

3.2.- Ez dago taldearen osaeraren inguruko baldintzarik, baina deialdi honetako laguntza berezia eskuratzen duen taldearen osaera Eusko Jaurlaritzaren 2015eko deialdira aurkeztutako bera izan behar da.

3.3.- Ezin izango dira deialdi berezi honetara aurkeztu Ikertaldeentzako laguntzen UPV/EHUKo 2014ko, 2015eko eta 2016ko deialdietan finantzazioa lortu duten taldeek, ez bada laguntza hauei uko egiten zaiela.

4. OINARRIA.- LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

Deialdi honetako laguntzek honako ezaugarriak dituzte:

4.1.- Laguntzak 2017 eta 2018 urteetan emango dira, honen arabera:

- a. 2017ko laguntza berehala emango da diru laguntza hartzeko agiria eta Eusko Jaurlaritzak 2018an egingo duen ikertaldeentzako laguntza deialdian parte hartzeko konpromiso agiria sinatzean.
- b. 2018ko laguntza, urtea hastean emango da.

4.2.- Ikertalde bakoitzari emango zaion diru kopurua zehazteko, honakoa izango da kontuan: 2015eko azaroaren 10eko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena,

euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko diru laguntzetarako deialdia egiten duena, 12.5.c artikuluko taula. Gehienez emango den kopurua urte bati dagokiona izango da, eta bi urtekotan banatuko da.

5. OINARRIA.- LAGUNTZEN IZAERA

Eskatutako laguntza xede hauetarako erabili ahal izango da:

- a. **Ohiko azpiegitura zientifikoa eta tresneria informatikoa erosteko;** tresneria informatikoa ikerketa jarduerarako berariazkoa izan behar da, eta, hortaz, erosketarako baimena lortu ahal izateko, egiaztatu egin beharko da tresna horren premia. Erosketa horiek, edozelan ere, UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketen Zerbitzuaren bidez baino ezin izango dira egin. Horrela egin ezean, hau da, erosketa egiteko ez bazaio UPV/EHUk ezarritako prozedurari jarraitu, taldeari laguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio, hain zuzen ere, erosketa horren zenbatekoa.

Azpiegitura zientifikoa eta tresneri informatikoa laguntzaren bigarren urtea bukatu baino sei hilabete lehenagora arte eros daiteke. Denboraldi hori igarotakoan, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak epigrafe honi esleitutako finantziazioa kenduko du.

- b. Material suntsikorra.
- c. Bidaiak eta dietak, barne hartuta edozein motatako joan-etorrietako gastuak, barne direla biltzarretako parte hartzeak (eta izen-ematearen gastuak) eta beste zentro batzuetan egindako egonaldi laburrak.
- d. Beste gastu batzuk: aurreko atalean zehaztutako gastuetan sartzen ez direnak, baina behar bezala egiaztatuta daudenak. Atal honetan sartu ahal izango dira: ekipamendu zientifikoa konpontzeko eta egoera onean izateko egindako gastuak, UPV/EHUren Zerbitzu Nagusiek egindako mantentze kontratuetan jasota ez badaude; ikerketa jardueran parte hartzen dutenentzako aseguruak, UPV/EHUn lan egiteko istripu aseguruaren estaldura ez badute.

Egin beharreko gastua ez bada aurreko ataletan zehaztutakoa, baimena eskatu ahal izango zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

6. OINARRIA- ESKARIAK AURKEZTEKO ERA

Eskariak, eskari eredia erabilita, paperean aurkeztuko dira UPV/EHUko erregistroetan; Eusko Jaurlaritzak 2015ean egindako deialdian aitortutako taldeko ikertzaile nagusiak sinatuta egon behar da.

Eskari orria Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian lortu ahal izango da, deialdi hau argitaratuko den gunean.

7. OINARRIA.- ESKARIEN EBALUAZIOA

Deialdi honetara aurkeztutako eskariak ez dira ebaluatuko, ebaluatua izan baitziren eta aitortpena lortu Eusko Jaurlaritzaren 2015eko deialdian, eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak badauka ebaluazio hori. Ikertalde hauen onarpena ebaluazio hartan oinarrituta dago.

8. OINARRIA.- ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskariak aurkezteko epea 10 egunekoa izango da, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

9. OINARRIA.- ESKARIAK EGITEKO ERA

9.1.- Eskaria UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordetzari zuzendu behar zaizkio eta 6. oinarrian adierazitako eskari orria baino ez da aurkeztu behar; eskariak UPV/EHUko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Bizkaiko Campusa) edo Gipuzkoako edo Arabako campusetakoan edo ikastegietakoan.

Era berean, eskaerak aurkeztu ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako beste edozein bidetatik.

9.2.- Eskari orri arautua ikerketako web gunean eskuratu ahal izango da:

<http://www.ehu.eus/es/web/ikerketaren-kudeaketa/home>

10. OINARRIA.- LAGUNTZAK KUDEATUKO DITUZTEN ORGANOAK

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, Ikerketaren Gestio Zuzendaritzaren bidez, kudeatuko ditu deialdi honetan zehaztutako laguntzak.

11. OINARRIA.- ESKARIEN TRAMITAZIOA

11.1.- Eskariak aurkezteko epea behin bukatuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak argitara emango du, hamar eguneko epean, datu edo baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskarien zerrenda, bertan jasota zer den zuzendu beharrekoa.

Hamar egun baliouduneko epea irekiko da, zerrenda argitaratzen denetik hasita, dokumentazioa osatzeko.

Epe hori igarota ez bada akatsa zuzendu, ulertuko da eskaria bertan behera utzi direla.

12. OINARRIA.- ERABAKIA

12.1.- Ikerketaren arloko Errektoreordeak 3. oinarriko baldintza betetzen duten ikertaldeei laguntza berezia emateko erabaki proposamena aurkeztuko dio IGBBri.

12.2.- IGBBk onartu ondoren, laguntza emateko erabakia ikerketako web gunean argitarako da.

12.3.- Erabakiaren kontra berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123 eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabakia publikatu eta hurrengo egunetik hasita.

13. OINARRIA.- LAGUNTZA ESKURATZEKO BALDINTZAK

Deialdiaren erabakia behin argitaratuta, ikertaldeko ikertzaile nagusiak agiria sinatu beharko du laguntza eskuratu ahal izateko. Agirian adierazi beharko du erabakian zehaztutako baldintzak onartzen dituela eta konpromisoa hartzen duela euskal unibertsitate sistemako ikerketa taldeen jarduerak bultzatzeko xedez Eusko Jaurlaritzak 2018an egingo duen deialdira aurkezteko bere ikertaldearekin.

14. OINARRIA.- JARRAIPENA

14.1.- Ikerketaren arloko Errektoreordetzak diru laguntza jaso duten eskaerei jarraipena egiteko prozedura antolatuko du.

14.2.- Zerbitzu Nagusien bidez egin ez diren gastuen kasuan, jatorrizko faktura gorde beharko da ikertaldeko ikertzaile nagusiari dagokion sailean edo institutuan, eta eskuragarri izan beharko da deialdi honen kargura emandako laguntzen inguruan honako organoek, beren eskumenen babesean, egin ditzaketen egiaztapenentarako: Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko barne auditorietako zerbitzuak, kontrol ekonomikoko bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

Ez da onartuko, ezelan ere, fotokopiarik jatorrizkoa galdu egin delako.

14.3.-Ikertaldearen gastutzat hartuko diren gastu bakarrak izango dira 4. oinarrian finantziatorako zehaztutako epearen barruan egindakoak, hau da: epe horren barruan benetan ere gauzatutako erosketa, bidaiak, lan eta abarrek eragindakoak.

15. OINARRIA.- EMAITZEN BERRI EMATEA ETA EMAITZEN USTIAKETA

15.1.- Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan edo emaitzok zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak edo patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

15.2.- Ikertzaileak zein erakundetakoak diren jasota agertzeaz gain, esker onen atalean zehaztuta ageri beharko da ikerketa hori aurrera eramateko finantziarioa eman duten erakundeen zerrenda.

15.3.- Ikertaldearen jardueren bidez lortutako emaitzak jabetza intelektualaren edo industrialaren arloko tituluren baten bidez babestuta egon badaitezke, UPV/EHUko Jabetza Intelektual eta Industrialaren Erregimenari buruzko Arautegia bete beharko da.

16. OINARRIA.- LAGUNTZA ESKURATZEKO OINARRI IZANDAKO BALDINTZAK ALDATZEA

16.1.- Laguntza emateko aintzat hartutako baldintzak aldatuko balira eta, nolnahi ere, beste administrazio batzuek, pribatuek zein publikoek, xede bererako emandako laguntzarik eskuratuz gero, aldatu ahal izango da laguntza emateko erabakia eta dagokion kitapena egin.

16.2.- Horrelakoetan, administrazio prozedurari emango zaio hasiera (abenduren 17ko 698/1991 Dekretuko 4. artikulua; 1992/02/7ko EHAA), IGBBren proposamenari jarraituz edo batzorde horrek txostena egin ondoren, eta ikertaldeko ikertzaile nagusiari berari egingo zaio jakinarazpena.

16.3.- Ondorio horietarako, ulertuko da laguntza emateko oinarri izandako baldintzak aldatu egin direla, besteak beste, honelako kasuetan:

- a. Ikertaldeak uko egitea bere jarduerari, talde barruko lankidetzak harremanak bertan behera uztea edo egiatan apurtzea, ikertzaile nagusia UPV/EHUkoa ez den beste erakunde batera joatea, edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joatea, eta horren eraginez taldearen zuzendaritza edo aurreikusitako emaitzen lorpena arriskuan egotea.
- b. Ikertaldeak egindako jarduerak bat ez etortzea proposatutako helburu eta epeekin, horretarako Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren baimenik eduki gabe.
- c. Deialdi honetako baldintzak, guztiak edo batzuk, modu larrian ez betetzea.
- d. Datuak ezkutatu edo aldatzea, edo eskaeran bestelako manipulaziorik antzematea.
- e. Jarduera finantzatzeko xedez egindako deialdi honen barne ez dauden gastuak egitea UPV/EHUk kontrataziorako ezarritako prozedura zentralizatuak bete gabe.

17. OINARRIA.- TALDEAREN OSAERA ALDATZEA

17.1.- Taldean aldaketarik egin nahi izanez gero, eskaria egin behar zaio Ikerketaren arloko errektoreordetzari, aldaketa onar edo ezeztatu dezan.

17.2.- Taldean egindako aldaketak -kide berrien altak edo bajak- Ikerketaren arloko errektoreordetzak baimena ematen duen unetik aurre izango ditu ondorioak.

17.3.- Taldeko kide kopurua gutxitzearen ondorioz gerta daiteke finantziazioa eguneratzea edo taldea bertan behera geratzea.

18. OINARRIA.- LAGUNTZA ESKURATZEN DUTENEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoenerako, aplikatuko da Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/03 Lege Orokorra, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenak eta arau hauste eta zigorrei buruzko arauak.

Horretarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean beste administrazio batzuetako organo zehatzei buruz egindako aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitate organorako direla, edo, gertuen dagoen organorako.

19. OINARRIA.- JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIOAK

19.1.- Deialdi honetarako proposatu diren jardueretan gizakirik, gizakien lagin biologikorik edo pertsonen datu pertsonalak erabiliko badira, honakoak bete beharko dituzte:

- Deklarazioetan jasotako printzipio etikoak errespetatu (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokioko Deklarazioa, 2004).
- Indarreko araudia bete: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketei buruzkoa; 1716/2009 EDa, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; Datu Pertsonalei buruzko 15/199 Lege; eta UPV/EHUko araudia, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, 2008koa.
- IIET/GIEB-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aldeko txostena lortu, alde zuzenetik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).

19.2.- Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ordeztu, murriztu eta fintzeko irizpideak errespetatu, nazioartean sustatu bezala.
- Animaliekiko ikerkuntzaren arloan (53/2013 ED) indarrean den arautegia bete.
- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, alde zuzenetik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru aldundien abeltzaintza saila).

19.3.- Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Prebentzio, zuzenbidea eta informazioaren printzipioak errespetatu, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionean.
- Arlo honetan indarrean den legeria bete: laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 legea; agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzko 664/1997 ED; agente kantzerigenoen esposizioari lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzko 665/1997 ED; genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duen 9/2003 legea eta 178/2004 ED).
- Agente Biologikoekin eta Genetikoki Eraldatutako Organismoekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB) aldeko txostena lortu, alde zuzenetik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).

19.4.- Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrio zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IKERTALDEEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDI BEREZIA, EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAKO IKERKETA TALDEEN JARDUERAK BULTZATZEKO XEDEZ EUSKO JAURLARITZAK 2015ean EGINDAKO DIRU LAGUNTZETARAKO DEIALDIAN AITORPENA LORTU ARREN FINANTZIAZIORIK LORTU EZ ZUTEN IKERTALDEEI ZUZENDUA (2017)

Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen; eta 09/2014 ED, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira (EBO, 290. zk., 2011ko abenduaren 2koa, ostirala).

19.5.- Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez daiteke hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Deialdi hau UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak onartu eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Leioan, 2017ko otsailaren 8an.



Jose Luis Martín González
Ikerketaren arloko errektoreordea
Vicerrector de Investigación